



## MARTXELI GORRITI PERURENA

### 2008ko URNIETAR PRESTUA

ARRATSALDE ON, II. IÑISTOR JAI HONETARA ETORRI ZARETEN GUZTIOI.

IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRAK URNIETAKO HERRIAREN ALDE ALOR EZBERDINETAN ON BEHARREZ ETA ESKUZABALTASUNEZ GOGOTIK LAN EGIN DUTEN EDO EGITEN ARI DIREN HERRITARRENTZAT ESKER ONEKO, BEGIRUNEKO ETA EZAGUTZA EDO AINTZATESPENENKO IZENDAPENA SORTU DU, *URNIETAR PRESTU* DEITU DUENA, BERE HELBURUA PRESTUTASUNEZ URNIETAREN EDO URNIETARREN ALDE –EDO BAITA GIPUZKOA ETA EUSKAL HERRIAREN ALDE– LAN EGIN DUTENEI ESKERRONA AZALTZEA BAITA, ETA ESKERRON HORI IRAUNKORKI EZAGUTZERA EMATEA.

AURTEN DUGU LEHEN URTEA, LEHEN IZENDAPENA. IZENDAPEN HAU ERABAKITZEKO, EBAZTEKO, ARAUDIA IDATZI ETA ONARTU GENUEN, ETA ARAUDI HORREN ARABERA ZORTZI LAGUNEZ OSATURIKO EPAIMAHAI BATEK AURTENGO IZENDAPENA ERABAKI DU.

\*\*\*\*\*

IA-IA KONTURATU GABE HASI ZEN LANEAN, TXIKI-TXIKITANDIK, HAURRA ZELA AMONARI ETA AMARI LAGUNTZEN URNIETAKO ELIZAKO SERORETZA LANETAN. EZKILA ETA KANPAIAK JO BEHAR ZIREN ASTEAN ZEHAR IA ETENGABE; ELIZA GARBITU BEHAR ZEN, ELIZA GARBITZEA ORAIN BEZAIN ERRAZ GERTATZEN EZ ZEN GARAI BATEAN; APAIZEN MEZETARAKO JANTZIAK PRESTATU, GARBITU ETA ZAINDU, ALDAREAK TXUKUNDU, LOREAK JARRI..., ETA BESTE HAMAIKA LAN MARTXELIREN AMOÑAK ETA AMAK INOREN LAGUNTZARIK GABE EGIN BEHAR IZATEN ZITUZTENAK. HORTXE IKASI ZUEN MARTXELIK OFIZIOA, ETA BERE AMOÑAK ETA GERO AMAK UTZI ZUTENEAN, BOLADA BATEZ AHIZPARI LAGUNDU ONDOREN, AZKENIK SERORETZA BERAK HARTU BEHARREAN GERTATU ZEN.

HORRETAN EMAN ZITUEN 30 URTE INGURU, MARTXELIK BERAK EZ DU ONDO GOGORATZEN ZENBAT IZAN ZIREN, AURREKOAK ETA ONDORENGOAK DENAK NAHASTEN BAITITU, BERA BIZITZA OSOKO EGINKIZUNA IZAN BALITZ BEZALA. HAINBESTE URTE ELIZAKO LANIK ESKERGAIZTOKOENAK EGITEN, HORREN TRUKE DIRU-SARIRIK JASO GABE, HORREN TRUKE EZER ITXARON GABE, BERE KONTZIENTZIAK HALA AGINTZEN ZIOLAKO. SERORETZA LANETAN MARTXELIK NOIZBAIT SENARRA HARTU ZUEN ERE ONDOAN, ETA ANDRES ERE MAIZ LANEAN JARRI ZUEN: SANTUAK GORA, SANTUAK BEHERA, ERRETAULETARA IGO ETA JAISTEN. ETA ALABAK ERE, GOGO ONEZ EDO TXARREZ, AMARI ELIZAN EDO SANTA LEOKADIAN LAGUNDU EGIN BEHAR IZATEN ZIOTEN, ELIZA OSO HANDIA BAITZEN.

LAN HORIEK GUZTIAK BERE GAIN HARTUZ HAINBESTE URTETAN, XOXIK IKUSI GABE, EZ DA NOLANAHIKOA MARTXELI GORRITIK URNIETAKO ELIZARI ETA KRISTAU ELKARTEARI EGINDAKO ZERBITZUA.

NOIZBAIT URNIETAKO EGAPE IKASTOLA BERRIAN LAN EGIN ETA ETXERA JORNALTXO BAT ERAMATEKO AUKERA SORTU ZITZAION, ETA EZ ZUEN AUKERA HURA GALTZEN UTZI: SERORA LANAK UTZI –GUZTIZ UTZI EZ ZITUEN ARREN– ETA IKASTOLAN HASI ZEN SUKALDARI ETA JANGELAKO ARDURADUN GISA. URTEAK EMAN ZITUEN HORRETAN ERE, IKASTOLAKO HAUR ETA GAZTETXOENTZAT BAZKARIA EGIN, JANGELA ATONDU, BAZKARIA ZERBITU ETA HAURREI, HAUR GUZTIEI, JANARAZTEN, NOLA EZ BA TARTEKA BATI ETA BESTEARI GOGOR EGINEZ, “*MANU MILITARI*”.

LANIK GEHIENTSUENA URTEETAN BAKARRIK. GUZTIZ PENTSA EZINA LITZATEKE INORK BALDINTZA HORIETAN LAN EGITEA GAUR EGUN. BAINA ENBOR GOGORREKO EZPALA GENUEN MARTXELI, ETA ERRETIROA HARTU BITARTEAN ZINTZOTASUNEZ BETE ZUEN BERE EGINKIZUNA, GOIZEKO SEIETAN HASTEN ZENA. OSO GOGOAN DU MARTXELIK, INOIZ IRAKASLE BAT EDO BESTE ETORTZEN ZITZAIOLA PERTZA ETA ELTZE ERRALDOIAK



SUKALDEAN BATETIK BESTERA MUGITZEN LAGUNTZERA. HALAKOAK ZIREN DIRUZ BETI ESTU ETA LARRI ZEBILEN IKASTOLA HARTAKO LAN-BALDINTZAK.

HORRA URNIETAR JATOR BAT, BIZITZA OSOAN BERE ONENAK EMAN DITUENA BESTEEN ZERBITZUAN, BESTEENGANDIK OPARIRIK ETA DIRU-SARI BEREZIRIK ITXARON GABE, ESKUZABALTASUNEZ, URNIETARREN ON BEHARREZ.

HORREGATIK GUZTIAGATIK GAUR, 2008KO IRAILAREN 28AN, URNIETARREN ESKER ONA ADIERAZI NAHI DIZUGU, MARTXELI, ADITZERA EMAN URNIETARREK EZ DITUZTELA AHAZTU, EZ AHAZTUKO ERE, ZURE AHALEGIN ETA NAHIGABEAK HAINBESTE URTETAN, ETA HORREXEGATIK IZENDATU ZAITUZTELA

**MARTXELI GORRITI PERURENA**

***URNIETAR PRESTU 2008. URTEAN.***

**ZORIONAK MARTXELI!**

